



EAE-KO GAZTE PLANAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAREN AKTA,
Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 26a.

Partaideak:

- Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta bileraren burua.
- Xabier Sánchez, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendaria, idazkari lanetan.
- Gurutz Larrañaga, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea.
- Andoni Ganboa jauna, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren ordezkaria.
- Javier Inda jauna, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren ordezkaria.
- Koro Garmendia andrea, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ordezkaria.
- Javier Aspuru jauna eta Itziar Aizpurua andrea, Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak.
- Maite Berrocal andrea, Vitoria-Gasteizko Udalaren ordezkaria.
- M^a Isabel Landa andrea, EUDELen ordezkaria.
- Nerea Teruelo andrea, EUDELen ordezkaria.
- Miren Lore Martinez andrea, EUDELen ordezkaria.
- Javier Delgado jauna, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkaria.
- Agurtzane Iriondo, Fco. Javier Gutiérrez eta José Antonio Pérez de Arrospide (Eusko jaun-andreak Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzako teknikariak) eta Gotzon Baraia-Etxaburu jauna, Kualitate Lantaldea enpresatik.

Ezin etorria adierazi dute:

- Juan Jose Loroño jaunak, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren ordezkariak (Lan Sailburuordetza).
- Josu J. Sagasti jaunak, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren ordezkariak (Justizia Sailburuordetza).
- Francisco Javier Burón jaunak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkariak (Etxebizitza Sailburuordetza).
- Luis Fernando Consuegra jaunak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkariak (Gizarte Gaietako Sailburuordetza).
- Pedro M^a Bernales jaunak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkariak.
- Rafael Cerdán jaunak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ordezkariak.
- María Isabel Sola andreak, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren ordezkariak.
- Josune Ariztondo eta Maitane Leizaola andreak, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariak.
- José Ignacio Insausti eta Haritz Solupe jaunek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak.
- Jon Sustatxa Diaz jaunak, Bilboko Udalaren ordezkariak.
- Arritxu Marañón andreak, Donostia-San Sebastián Udalaren ordezkariak.



Miren Azkarate Kultura sailburuak, bileraren buruak, hasiera eman dio bilerari, bertaratutakoak agurtu ditu eta aurkezpenen txandari ekin dio. Aurkezpenen ondoren, gai-zerrendaren puntuak lantzen hasi da.

1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.

Zuzendaritza Batzordearen aurreko bileraren —2007ko abenduaren 20ko bileraren— aktaren zirriborroari dagokionez, Miren Azkaratek jakinarazi du, aurrekoetan bezala, ohiko postaz igorri dela aurrerapen nahikoz eta ez dela zuzenketarik jaso. Proposatutako aktaren idazketa aurkeztu du sailburuak onartua izan dadin. Ez da eragozpenik izan eta, horrenbestez, aho batez onartu egin da akta eta gaien zerrendako bigarren gaia lantzeari ekin dio.

2. 2007ko ebaluazioa:

a) Erakunde bakoitzaren datuen aurkezpena.

b) Hala badagokio, 2007. urteari dagokion zeharkako gazte politika integralaren garapenari buruzko txostena onartzea.

Kultura sailburuak *Gazte politika integralaren garapenari buruzko 2007ko txostena* aurkeztu du Zuzendaritza Batzordeak onar dezan. Txosten horretan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako sailen 2007ko ekintza positiboen eta engaiatutako eragileen beste jarduketa batzuen ebaluazioa zehazten da.

Txostena Euskadiko gazte politika integrala koordinatu, sustatu eta garatzeko mekanismoak zehaztuta abiatzen da. Zuzendaritza Batzordea horietako bat da. Bere azkeneko bilera 2007ko abenduaren 20an egin zen. Sailburuak bilera hartan landutako edukiak azaldu ditu laburki:

- Bilera hartan II. Gazte Planaren indarraldia amaitu eta gero onartu ziren Gazte Politika Integralak sustatzeko Bitarteko Neurriei buruzko informazioa eman zen. Alderdi horretatik, Eusko Jaurlaritzak Jarraipen Agirian txertatu zituen bereak, eta bertako sailek geroko Gazteen Euskal Legea behin betiko onartu aurretik hartutako konpromisoen berri eman zuen. Bitarteko Neurri horiek 2006ko abenduaren 26ko Jaurlaritzaren Kontseiluan onartu ziren.
- Bitarteko Neurri horien inguruan, 2006ko ekintza positiboen ebaluazioari dagozkion datuak ere aurkeztu ziren, eta, hartara, *Gazte politika integralaren garapenari buruzko 2006ko txostena* onartu zen.
- 2007ko ekitaldirako konpromisoak ere aurkeztu ziren.
- Eusko Jaurlaritzako II. Gazte Planaren Eraitzen Ebaluazioa aurkeztu zen.
- Gazteen Euskal Lege Aurreproiektuaren zirriborroa aurkeztu zen, erabilitako metodologiaren berri eman zen eta edukiak azaldu ziren, bereziki gazte politika integralaren ereduaren bereizgarriak diren hiru bloke tematikoak: emantzipazioa edo zeharkako politika, gaztetasunaren sustapena edo berariaz gazteentzat diren zerbitzu eta ekipamenduen politika, eta gazteen partaidetza.
- Gainera, gazte politika integrala koordinatu, sustatu eta garatzeko bestelako mekanismo batzuk ere landu ziren eta, horren haritik, honako agiri hauek aurkeztu ziren:
 - 1.- Gasteizko Udalaren 2006-2008ko epealdiko Gazte Plana.



2.- II. Gazte Plana, Bilbao Aktiba (2007-2009) eta Bilboko Udalak 2006-2007an sustatutako gazte politika integralen eboluzioaren laburpen gisako txostena.

Aurreko bileran landutako gaiak aztertu ondoren, Miren Azkarate Gazteen Euskal Behatokiak 2007an burutu dituen jarduerak zehaztera igaro da.

- 2007an 2 konferentzia gauzatu ziren:
 1. Gazteei eta gatazkari buruzko nazioarteko konferentzia Arantzazun (Oñati). Youth Work in Contested Spaces konferentziaren 4. edizioa izan da. Ipar Irlandako Public Achievement GKEak eta Gazteen Euskal Behatokiak antolatua, Baketik Bake Zentroaren lankidetzarekin.
 2. Gazteen Nazioarteko Mintegia Erlijio eta Kultura arteko Elkarriketari buruz. Barandiaran Kristau Alkarteak eta Pax Romanak antolatua. Gazteen Euskal Behatokia mintegiaren egoitza izan zen.
- Urteroko banakako bi ikerketa-beka. 15.000 eurokoak dira, 30 urtera artekoei zuzenduak, Euskadiko gazteekin zerikusia duten gaiak ikertzeko.
- 5 ikerketa;
 - *Euskadiko gazteen panoramika 2.*
 - *Gazteen argazkiak 10.*
 - *Gazteak, ezgaitasuna eta aisia.*
 - *Euskadiko gazteen mugikortasun espazialaren ereduak.*
 - *Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Heziketarako Gida.*
- *Euskadiko gazteen panoramika: Gazteen adierazleak 2007* liburua argitaratu da.
- Estatistika arloan:
 - Base estatistikoak sortu, kudeatu eta artatzen jarraitu da.
 - Gazteentzat interesgarriak diren adierazleak sortu dira, Gazteen Euskal Behatokiaren webgunearen, 11.000 gazteri banatzen zaion hileroko Gazteukera buletinaren eta 1.000 gazte eragileri banatzen zaion Gazte.Doc buletin elektronikoaren bitartez hedatzera begira.
 - 2005-2008 epealdiko Estatistikako Euskal Planean parte hartu da Gazteen Panoramika izeneko eragiketa estatistikoarekin.
- Webguneari dagokionez,
 - "Esperientzien trukea" izeneko atal berria sortu da. Bertan mintegiak, hitzaldiak, konferentziak eta abar biltzen dira.
 - Buletin elektronikoari diseinu berria eman zaio.
 - Webgunearen ingelesezko bertsioa gainbegiratu eta eguneratu da.
- Gaur egun dokumentazio zentroak 3.350 ale ditu katalogaturik.
- Prestakuntzari dagokionez, 9 ikastaro egin dira, askotariko gaiei buruz: gazte indarkeria, gatazkak etikoki lantzeko ikastaroa eta nerabeekin esku hartzeko ikastaroa, besteak beste.

Eusko Jaurlaritzak 2007an buruturiko jarduketari dagokienez, sailburuak gogorarazi du Jaurlaritzaren Kontseiluak honako txostenak onartu egin dituela:

- 2005eko ekintza positiboen ebaluazioa
- 2006ko programazioa eta
- 2007ko programazioa

Beste planekiko koordinazioari dagokionez, Miren Azkaratek Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren parte-hartzea duten plan eta batzordeen zerrenda (16)



azaldu du. Miren Azkaratek jakinarazi du gero eta gehiago direla lankidetzan edo partaidetzan hori eskatzen duten plan eta batzordeak. Beraz, gure politikan zeharkakotasuna aplikatzeko modua eredu bat da beste jardun-esparru batzuetara egokitzeko.

Euskadi Informazioaren Gizartean planaren baitan, eta Administrazioa Eraberritzeko Bulegoarekin lankidetzan, Gazteak atari gaztea sustatzen jarraitu da. Gazteak bidez gazteek Eusko Jaurlaritzaren beka, laguntza eta dirulaguntza guztiak zuzenean kontsulta ditzakete, bai eta gazteen berriazko esparruari dagozkion eduki eguneratuak ere (adibidez, araudia, argitalpenak, ikastaroak, estatistikak eta abar). Edukiak Euskadi.net atarian txertaturik daude eta horrek Gazteak sail eta erakunde autonomoei buruzko informazioa bistaratzeko aukera ematen du. 2007ko otsailan webguneari diseinu berria eman zitzaion, eta horri esker nabigazioa erraztu da eta edukiak ordenatuago aurkeztu dira.

Auzolandegien deialdian izena on-line eman ahal izan den hirugarren aldia izan da 2007koa. Plaza eskuragarriak momentuan kontsultatu ahal izan dira eta plazak izena emateko momentuan erreserbatu. Ordainketa banka elektronikoa bidez ere gauzatu ahal izan da. Gainera, sistemak plazaren behin-betiko esleipena jakinarazi dio partaideari SMS bidez.

Webguneari eta blog-aren bisita kopuruaren gorakada handiarekin (%67 eta %40 gehiago 2006an baino, hurrenez hurren) eta Gazte Txartelaren titularrek lehiaketa eta zozketetan izan duten parte-hartze handiarekin batera, Gazteak bidez ezagutzera ematen den helbide elektronikoa gazteek kontsultak eta informazio eskaerak egiteko komunikazio biderik erabili dela egiazta daiteke.

Gainera, II. Gazte Plana udalerrietan bultzatzearen erronkari aurre egite aldera, gazte politika integrala udalerrietan indartzeko eta EAEko gazte ekipamenduak sendotzeko laguntza multzoa eman zen. Kultura sailburuak ondoko bi atalei dagokienez 2007an egindako proiektuak eta emandako zenbatekoak zehaztu ditu:

1.- Udaletan gazte politika integrala sustatzeko laguntzak: gazte politika integralak ezartzeko premien azterketak, analisiak edo aurretiazko txostenak egiteko; gazte politika integralak ezartzeko neurrien plangintza egiteko; eta/edo sail arteko plan estrategikoak lantzeko edo gazteentzako zerbitzuak ezarri, indartu eta garatzeko gastu arruntak ordaintzeko; bai eta gazte politika integrala garatzeko toki-entitateek aurrera eramandako jarduerak eta jarduketak zehazten gastuak ordaintzeko ere.

2.- Gazte ekipamenduak sortu edo indartzeko laguntzak: gazte ekipamendu izatera bideratutako eraikinetan eraikuntza, erreforma, egokitze edo zabaltze lanak egiteko asmoz, profesional gaituek proiektuak lantzeko, bai eta obrak burutzeko ere.

Eta Euskadiko politika integrala 2007an koordinatu, sustatu eta garatzeko mekanismoei buruzko atal honekin amaitzeko, Arabako Foru Aldundiak emandako informazioa jakinarazi du, zehazki toki erakundeei Gazte Plana sustatzeko eman zaizkien laguntzei buruzkoa.

Arabako Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari gerente Jasone Solabarrietak lurraldeko udalei Gazte Planak bultzatzeko emandako laguntzen zerrenda aurkeztu du. Komentatu du Arabako egoera nahiko zukeena bezain ona ez dela —hainbat koadrilek ez baitute Gazte



Plana onartu— baina Arabako Foru Aldundiak Gazte Planak garatzeko ekintzak bultzatzen jarraitzen duela udalerrri bakoitzak laster bere plana izan dezan eta abiarazi dezan.

Arabako Gazteriaren eta Gizarte Sustapenaren Saileko Foru Diputatu Javier Aspuruk hitza hartu du eta azaldu du zenbatekoak ez direla nahi adinakoak izan horiek izan direlako heldutakoan aurkitu zituztenak, hau da, 2007tik ekarriak, eta 2009rako handitu direnak.

Jarraian Maite Berrocal Gasteizko Udalaren Presidentzia, Kultura eta Kirol Arloko zinegotziak hartu du hitza. Gasteizko Udalaren Gazte Planaren 2007ko egikaritzeari eta 2008rako programaturako ekintzei buruzko informazioa bidali duela jakinarazi du. Planaren indarraldiaren hiru urteetarako (2006-2008) milioi bat eurotik gora bideratu duela esan du eta, une horretan egikaritutako planaren ebaluazioa egiteko kontratazioan dihardutela. Ebaluazio hori hurrengo Gazte Plana lantzeaz batera burutu nahi du. Azkenik, Geureka programarekin lortutako arrakasta azpimarratu du. Geureka egitasmoa, hautespen prozesu baten ondoren, gazteen 5 ekimen abiaraztean datza.

Miren Azkarate sailburuak komentatu du gainerako aldundi eta udalek ere euren programa eta ekimenak izango dituztela seguruenik, batzuk arrakastatsuagoak bestek baino. Era berean, urtero azaltzen diren ekintzen programazio eta ebaluazio lanak ere burututa izango dituztela adierazi du, baina ez dela horrelakorik jaso EAEko Gazte Planaren Idazkaritzan aurkeztu den txostena itxi baino lehen. Beste alde batetik, normala da, programazio deszentralizatuari ekin zitzaionetik, koordinazioa eta parametro adostu batzuk dituen oinarri komuna egonik —Gazte Planari eta Bitarteko Neurriei esker—, administrazio bakoitzak behar duenari eta burutuko dituen ekintzen planari buruzko gogoeta egitea, bakoitzak bere diagnostikoa eta errealitatea aintzat harturik. Alabaina, hori guztiori irizpide komunekin egin behar da, EAEko Gazte Planari esker lortutako oinarritik eta esperientziaz eratorritako irizpideekin, alegia.

Erakunde bakoitzak zeharkako gazte politika koordinatu, sustatu eta garatzeko mekanismoen baitan garatu duen jarduna aurkeztu eta gero, 2007ko ekintza positiborako konpromisoak egikaritzeari eta 2008ko programazioari dagozkion datuak aurkeztu dira.

2007ko ebaluazioa

Kultura sailburuak Eusko Jaurlaritzak 2007an arloetako bakoitzean burututako ekintzei buruzko datuak azaldu ditu. Txostenean burutu diren ekintza positiboak 153 direla zehazten da, eta buruturiko gastua 140.499.986,84 eurokoa izan dela.

Ekitaldi horretarako programaturako ekintzekin alderatuta, sailburuak esan du 4 ekintza gutxiago egikaritu direla eta gastua aski apalagoa izan dela, alde handia baitago programaturakoaren eta ebaluatutakoaren artean (18 milioi euro), besteak beste, ekintza batzuetan egikaritutako gastuari buruzko datuak falta direlako eta aurrekontuan gora jotzeko joera egon delako, hau da, aurrekontuan aurreikuspen handiagoa egin da azkenean erabili den zenbatekoa baino.

Horrenbestez, programaturikoaren eta buruturiko gastuaren artean dagoen aldea murrizteko, beste hainbatetan egin den bezala, zera proposatu da: hurrengo 15 egunetan sail bakoitzak



zirriborro hau gainbegira dezala, dagokiona zuzen dezala eta aurrekontuei buruz falta diren datuak Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzara igor ditzala, dokumentua behin-betikotzat jo dadin eta jendaurrean erakusteko moduan egon dadin.

Nolanahi ere, sailburuak adierazi du aurkeztutako datuek agerian uzten dutela aurreko ekitaldian baino inbertsio handiagoa egin dela: ekintza kopurua eta burututako gastua 2006koak baino handiagoak izan dira, 2007an 2006an baino ia 7 milioi euro gehiago erabili baitira gazte politikak egikaritzeko.

Hau da antzematen ari garen joera. Aurreko urteekin alderatuta, gorakada antzeman daiteke bai ekintza kopuruan bai gastuan. Urteen joanean, datuek ezagutzera ematen dute gero eta gazte politika gehiago burutzen ari direla eta buruturiko gastua ere pixkanaka gora doala aurreko ekitaldiarekin konparatuta. Eta hori berori konprobatu ahal izan da 2007ko ekitaldian.

Horrenbestez, ondoriozta daiteke urtean-urtean errepikatzen den ekintza positibo kopuru bat egon arren, badagoela baita ekintza berririk eta gero eta gehiago direla bai ezartzen diren gazte politikak bai egiten den inbertsioa. Urtetik urtera dagoen aldea ez da oso handia, baina beti izan da aurreko urteetako zenbatekoa baino handiagoa. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzako sailak gazte politikak ezartzeko egiten ari diren ahalegina garrantzi handikoa dela adierazi behar da.

Beste alde batetik, txostenaren 38. orrialdean *Enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eta zeharkako gazte politiken arteko osagarritasunari eta koordinazio mailari buruzko txostena* aurki daiteke. Txosten honetan jasotzen diren balorazioen xedea Jaurlaritzaren Kontseiluak hartu zuen Erabakia betetzea da. Bertan Gazteen Euskal Legea onartu artean gazte politika integrala bultzatzen jarraitzeko Bitarteko Neurriak onartu ziren.

Txosten honetan, enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politikek eta Zuzendaritza Batzordeak prestatutako gazte politikak duten osagarritasun-mailari buruzko balorazioa egiten da, bai eta politika horiek gazte politika integralean zehazturiko helburuekin duten koordinazio-mailari buruzkoa ere. Ondorio gisa, honako puntu hauek azpimarra daitezke:

- Lehenik eta behin, azpimarratu behar da politika sektorial horien eta Gazte Politika Integralaren arteko osagarritasun-maila egokia dela. Izan ere, politika integralaren bertute handienetako bat da gazteen beharrezko diagnostiko adostu eta zabalean oinarritzen dela. Beraz, sektorekako beste esku-hartzeetako analisiekin bat dator.
- Bigarrenik, nahitaezkoa da gazte politika zeharkako bilakatzen jarraitzea.
- Azkenik, ezinbestekoa da baita sailen arteko koordinazioa indartzen jarraitzea.

Beste alde batetik, lehen aipatutako Erabakiaren arabera, Kultura Sailak gazte politika integrala sustatu eta koordinatzeko mekanismo hauei eutsi beharko die:

- Gazteukera Atari Gaztea eta Leihatila Bakarra.
- Gazte politikarekin lotuta dauden beste planekiko koordinazioa.
- Mahai sektorialak.
- Udal plan estrategikoak prestatu eta garatzeko eta gazte ekipamenduen sarea sendotzeko finantziarioa ematea.



Sailburuak hitza luzatu die bertaratutakoei ekarpenen bat egin nahi izatekotan, baina ez dago parte-hartzerik eta onartutzat jo da *Zeharkako gazte politikari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 2007ko Jarraipen Agiria*.

2008ko programazioa.

Kultura sailburuak gai-zerrendaren 2. puntuko 2. atala lantzeari ekin dio beste txosten bat jorratzeko, *Eusko Jaurlaritzak gazte gaietako ekintza positiboetarako hartutako 2008ko konpromisoak*, alegia.

Txosten horretan Bitarteko Neurriak onartzeko Erabakia aurki daiteke, bai eta 2008ko ekintzen programazioari dagokion laburpen gisako koadroa ere. 2008ko programazioak guztira 150 ekintza jasotzen ditu, eta egikaritutako gastua guztira 163 milioi eurotik gorakoa izango dela azaltzen da.

Txosten horretako datuak 2007ko ebaluaziokoekin konparatuz gero, 2008rako 2007an egindako ekintzak baino 3 gutxiago eta 5 milioi euro gehiago programatu direla ikus daiteke.

Txostenean sailek hartutako konpromisoen zerrenda jasotzen da, 2008an egin beharreko ekintza positibo bakoitzari dagokion aurrekontu programatua burutzeko zenbatekoa zehaztuta. Era berean, aurrerago Eusko Jaurlaritzak sailez sail 2008rako programatu dituen ekintza positiboen zerrenda aurki daiteke, ekintza bakoitzari dagozkion xehetasun guztiekin.

Sailburuak galdetu du beste edozein erakundek beste daturen bat aurkeztu nahi duen. Ez da proposamenik egon eta gai-zerrendaren hurrengo gaia lantzeraino igaro da.

3.- Beste jarduera interesgarri batzuk:

2007ko ebaluazioaz eta 2008rako ekintza positiboez gain, gai-zerrendan aurreko bileratik garaturiko jarduera interesgarri batzuk erantsi dira. Honako gai hauen inguruan egin denari buruz informazio laburra eman nahi da:

- Gazteen Euskal Lege-proiektua.
- UPV-EHUrekiko hitzarmena gazte politikei buruzko unibertsitate masterra sortzeko.
- Euskadiko Gazte Informazio Zerbitzuaren aplikazio berria.
- II. Gazte Planaren amaierako ebaluazioaren egoera.
- Historikoa sailez sail, Behatokiaren webgunean.

Gazteen Euskal Legearen proiektuari dagokionez, Jaurlaritzaren Kontseiluak Gazteen Euskal Legearen proiektua onartu zuen iragan den irailaren 23an. Hurrengo egunean Juan José Ibarretxe Lehendakariak proiektua aurkeztu zuen Lehendakaritzan ospatutako ekitaldi batean. Ondoren, urriaren 3an, Eusko Legebiltzarraren Erregistroan aurkeztu zen ekimena.

Proiektuan, alde batetik, orain arte frogatu izan diren mekanismoak finkatzen dira. Bultzada berezia eman zaio Zuzendaritza Batzorde honi, gazteen emantzipazioa zeharkako gazte politikaren koordinazioaren bitartez errazteko garaian. Dena den, aldaketa txiki batzuk egon



dira: Zuzendaritza Batzordearen osaera eraldatu da, erakunde arteko Batzorde hutsa bilakatu da eta erakunde bakoitzean sail arteko batzordeak eratu dira. Gainera, Gaztetasunaren Sustapenerako Euskal Sistema sortu da, berariaz gazteentzat diren programa, zerbitzu eta ekipamenduak sustatzeko. Azkenik, nahi duen talde edo gazte orori Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan sartzeko aukera eman zaio, eta Kontseiluak bere jardun-esparrua Euskadiko herri-administrazio guztietara zabaldu du. Udalek edo aldundiek ere beren gazteria kontseiluak sor ditzakete, nahi izatekotan.

Printzipioz, Eusko Legebiltzarrak zuzenketak aurkezteko epea azaroaren 5ean amaituko zela erabaki zuen. Hala ere, Euskal Talde Popularrak epea luzatzea eskatu du birritan, urriaren 15ean lehen aldiz eta azaroaren 4an bigarren aldiz. Ildo horri helduta, sailburuak adierazi du Legebiltzarraren egutegiari zuhur jarraitu beharko dela. Horretarako, Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean, Gazteaukeraren baitan, Legeari buruzko atalera jo daiteke, edo bestela zuzenean Legebiltzarraren webgunera. Dena den, epeak direla-eta, legealdia amaitu baino lehen onartzea zaila izango dela uste duela adierazi du.

Beste gai bati helduta, Miren Azkaratek esan du datorren abenduaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko Lankidetzaren Hitzarmena sinatuko dela. Hitzarmen horri esker finantzatzeko dira Gazteriaren ikerketari buruzko unibertsitate masterraren titulu ofizialaren abiarazpena, Euskadiko gazteen errealitatea aztertu eta ikertzeko bi bekarako deialdia eta Euskadiko gazteen errealitate sozialari buruzko ikerketa proiektuen burutzapena.

Masterraren helburua goi-mailako prestakuntza akademiko eta profesionala ematea da, arlo honetan dihardutenei edo arloan lan egin nahi dutenei. Horrela gazteen errealitatea sakonki ezagutuko dute eta gazteen egoera sozialari egokitutako jarduketara proposamenak garatzeko aukera izango dute.

Beken deialdiarekin lortu nahi dena esku-hartzeari eta gazte politika publikoei buruzko ikerketaren esparruan etengabeko eskaintza finkatzea da. Hitzarmen hau sinatuta, urteroko programazio zientifikoa ere eratu nahi da, aztertu gabeko gaiei buruzko ikerketa proiektuak —bereziki ikuspuntu teorikokoak— barne harturik.

Hitzarmena, bi urtekoa, jarraiko bi urtez luzatuko da automatikoki, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan bere izenez jasota badago.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Hitzarmenaren babesean hartuko duen konpromisoa 200.080 euro ematekoa izango da: 68.000 Masterra finantzatzeko; 82.000 beka finantzatzeko; eta 50.000 ikerketa proiektuetarako. EHUK Hitzarmen honi 160.700 euroko ekarpena egingo dio, ordainsariei, lokalak artatzeko gastuei eta irakaskuntza eta ikerketa jardunarekin zerikusia duten gastu orokorrei aurre egiteko. Hitzarmenaren aurrekontua, guztira, 360.780 eurokoa da.

Beste gai interesgarri bat Gazte Informazio Bulegoetarako aplikazio berria da. Euskadiko Gazte Informazio Zerbitzua (EGIZ) honakoek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren mendeko Zentro Koordinatzaileak, foru aldundi bakoitzaren



mendeko hiru lurralde zentroek eta, nagusiki udalen mendekoak diren 84 Gazte Informazio Zentroek.

Zerbitzu multzo honek dokumentuen datu-baseen kudeaketarako informatika sare komuna darabil 1997tik hona, informazioa gorde, tratatu eta zabaltzeko.

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak, aplikazio horrek berrikuntza teknologikoa behar duela ikusita, Gazte Informazio Zerbitzuari euskarri hobea emango dion informazio sistema berria garatu du. Sistema berri hori lantzeko metodoan aplikazioaren analisia, eraikuntza eta ezarpena barne hartu dira. Guztira 330.000 euro inbertitu dira.

Gazte Informazio Zerbitzuaren bulegorik esanguratsuenei beren premien inguruan kontsultatuta oinarritu den analisi fasea amaitu eta gero, arkitektura informatikoaren eraikuntzari ekin zaio eta laster hasiko dira ezarpena eta EGIZen lan egiten duten pertsonen prestakuntza.

Horrela, bada, informazioaren kudeaketa, informatzaileen lana eta orain arte eman izan den informazio produktuaren amaierako kalitatea hobetzearen helburuak erdietsiko dira.

Maite Berrocalek hitza hartu du eta bilera bat egitea eskatu du tresna informatiko hori Gasteizko Udalaren tresnaren baitan nola koka daitekeen zehazteko. Bere iritziz, oso interesgarria litzateke bilera hori ahalik eta lasterren egitea, udalaren webguneko eduki guztiak berrantolatzea pentsatzen ari direlako.

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendari Xabier Sánhezek erantzun du bilera horiek egitea aurreikusita dagoela. Dirudenez, tresna honen ezarpenean bi fase daude: gazte informatzaileei zuzendua lehena —profesionalek informazioa tratatu eta kontsulta dezaten— eta informazioaren sindikaziora zuzendua bigarrena —gazte informazioaren programa orokor berria guztien webguneekin bateragarri bilakatzeko eta horrela gaur egungo sistemekin alderdi teknikoak, tresna erabilgarriak eta bateragarritasunak trukatu ahal izateko—.

II. Gazte Planaren Amaierako Ebaluazioari dagokionez, Kultura sailburuak jakinarazi du aurreko bileran banatutako Emaizen Ebaluazioaz gain, Eraginaren Ebaluazioa lantzen ari dela, datuak elkarrekin argitaratze aldera, II. Gazte Planaren amaierako ebaluazio gisa.

Eraginaren Ebaluazioaren lanak nahiko aurreratuta daude, baina *Euskadiko gazteak 2008* noiz argitaratuko zain gaude, beharrezkoak diren alderaketak egiteko diagnostikoaren oinarri izango baita. Izan ere, orain arte *Euskadiko gazteak 2000* eta *Euskadiko gazteak 2004* azterlanen parametroak erabili dira eta beharrezkoa da ebaluazio adierazle berberak dituen azterlana, hau da, amaierako ebaluazio honetan kontraste gisa balioko duten ebaluazio adierazleak dituen. Beraz, *Euskadiko gazteak 2008* azterlana esku artean edukitakoan, bertako datuak Amaierako Ebaluaziorako dauzkagun datuekin batera erabili ahal izango ditugu. Hortik aurrera hasiko gara eraginaren ebaluazioari dagokion argitalpena prestatzen. Datorren Zuzendaritza Batzordean zuenganatuko dizuegulakoan gaude, gutxienez zirriborro modura.



Sailez sail prestatu-rikog agiri-ien histori-koari dagokionez, Miren Azkaratek adierazi du Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean eskuragarri daudela Eusko Jaurlaritzako sailek gazteen arloan egindako urteroko ebaluazio eta programazioak. Beraz, bertan kontsultatu ahal izango dira azken urteotan programatu eta ebaluatu diren gazte politikak sailez sail.

Printzipioz, webgunean eskuragarri daudenak II. Gazte Plana hasi zenetik (2002tik) egin diren programazio eta ebaluazioak dira. Baina sailburuaren asmoa da lanarekin jarraitzea eta I. Gazte Planari dagozkionetara ere zabaltzea. Horrela, bada, laster 1999tik hona burutu diren gazte politiken histori-koa eskura izango dugu. Aurrerantzean informazio hau guztiau eguneratuz joango da: sail bakoitzetik ematen diren datuak bistaratu ahal izango dira txosten bakoitza Zuzendaritza Batzorde honetan eta Jaurlaritzaren Kontseiluan programazio edo ebaluazioa onartzen den heinean.

Lan horri oso garrantzitsua deritzogu, sailez saileko histori-koa edukita eta datu horiek aztertuta, azken urteotan sail bakoitzean garatu diren gazte politiken ibilbide edo bilakaerari buruzko datu argi-agoak eskura daitezke. Horrek orain arte gauzatutakoaren ikuspuntu erre-ala-agoa erakutsiko digu eta etorkizunean programazioak egiten lagunduko digu.

Horrela, bada, Miren Azkarate sailburuak amaitutzat jo du aurreko bileratik honako datuen eta ekintzarik esanguratsuenen aurkezpena. Bertaratutakoei hitza luzatu die Gazte Planak eta Programak koordinatu, sustatu eta garatzeko beste mekanismo batzuen berri eman dezaten. Ez da parte-hartzerik egon.

4. Galde-eskeak.

Galde-eskeen txanda ireki da, baina ez du inork parte hartu nahi izan. Sailburuak gogorarazi du 15 eguneko epean, eta jakinarazitako zuzenketak egin eta gero, itxitzat eta osotzat joko direla bileran aurkezturiko txostenak, gero jendaurrean erakusteko.

Beste alde batetik, txostenak osatzeko datuak biltzen jarraituko da eta, hori dela-eta, Zuzendaritza Batzorde honen Idazkaritzak urtarrilean 2009ko programazioari eta 2008ko ebaluazioari dagozkion datuak eskatuko ditu. Horiek guztioriek hurrengo bileran — 2009koan— landuko dira.

Azkenik, 12:45ean sailburuak amaitutzat jo du saioa eta eskerrak eman dizkie bertaratutakoei egon izanagatik eta, bereziki, datuen bilketan eta aurkezpenean parte hartu dutenei. Jarraian, bertaratutakoak agurtu ditu eta urte berri ona opa du guztientzat.